

## **EZ DONK 25 PLATAFORMAREN PRENTSAURREKO ASKEAREN EDUKIA**

Honako agerraldi honen bitartez, jendartean, UPV-EHUren azken 25 urte hauen inguruko bestelako ikuspegi bat plazaratu nahi dugu. Gu guztiok ez donk 25 lemapean bat egin dugu, honako agiri honen inguruan.

UPV/EHU gizartearekin uztartuta dagoen instituzioa ei da. Horixe da 25. urteurrenaren kariaz antolatutako propaganda kanpainan Perez errektoreak eta bestelako hezkuntza eta politika agintariek hamaika aldiz errepikatu diguten leloa.

Gure ikuspegia bestelakoa da. Edo, hobeto esanda, gutako bakoitzak bestelako ikuspegia du. UPVko ikasleak gara, ikasle ohiak, aspaldiko irakasleak, irakasle berriak, irakasle kaleratuak, bekadunak, zerbitzuetako langileak; eta gutako bakoitzak UPVren ibilbidearen gaineko bere iritzi propioa du.

Alta, orain arte ez digu inork iritzirik eskatu. 25. urteurrenaren kariaz ez da egon tajuzko hausnarketarik. Soilik logotipo bat eta lelo bera: UPV/EHU gizartearekin uztartuta dagoen instituzioa da. Zergatik tematu dira ideia horrekin horrenbeste? Ez al da izango, preseski, UPVren ibilbideak kontrakoa erakutsi duelako?

Guk uste dugu 25. urteurrenak orain artekoaren balantzea egin eta aurrera begirako ildo estrategikoen inguruan hausnartzeko abagune egokia izan beharko lukeela. Eta ikusita errektoradutzak ez duela orain arte ospakizun txatxuak baino haratagoko ezer egiteko batere interesik erakutsi, aipatu balantzea eta hausnarketa ahalbidetzeko ardura hartzea erabaki dugu. Horregatik,

### **KONPROMISOA HARTZEN DUGU**

UPVren iragana, oraina eta etorkizunaren inguruko eztabaida zabal, herrikoi eta parte hartzailea bideratzeko, horretarako beharrezkoak diren bitartekoak jarritz.

### **DEI EGITEN DIOGU**

unibertsitate komunitate osoari eztabaida horretan parte hartu dezan, nork bere ikuspegi eta iritzi propioaz.

**Azken 25 urte hauen inguruko gutariko bakoitzaren irakurketa honakoa da:**

### **Euskal Herriak Bere Eskola**

Unibertsitate honek ez du aintzat hartzen ez gure herria, ezta bere hizkuntza eta kultura ere. Horren adibide garbi dira egun ere oraindik, euskararen egoera diglosikoa bizi dugula, Euskal Herritarrak Frantses edo Espainol gisa matrikulatzen direla eta gainera unibertsitate hau ez dagoela gure herriaren behar izanetara begira, uko egiten baitio gure herriak behar duen goi mailako tresna izateari.

### **Presoen Aldeko Taldea**

Ospakizuna. Hori da UPVko arduradunek 25 urte hauei so egin ondoren egindako balantzearen emaitza. Guk baina, Presoen Aldeko Taldetik egiten dugun balantzea erabat bestelakoa da. Zapaiari edota izkinen atzealdeei begiratu besterik ez dago unibertsitatea kamera eta “segurtasun enpresa” delakoen agenteez beterik dagoela konturatzeko. Baina gure begirada etxeko hormetatik haratago ere zuzendu dugu, Estatuaren errepresioaren ondorioz giltzapean dauden ikasle presoen egoera aztertuz. Badira jada 3 urte ikasle presoen ikasteko eskubidea urratua izan zela, lehendik ikasteko zituzten arazo eta oztopoak ia ikastea ezinezko zaien arte okertuz.

25 urteren ondoren ikasleekiko kontrol soziala eta jazarpena puri-purian daude. 25 urteren ondoren ikasle presoen egoera inoiz baino larriagoa da. Gure balantzearen emaitza: Ez dugu ezer ospatzeko.

### **Garraio Zerbitzu Duin baten aldeko Plataforma**

Kontu zaharra da garraioarena... unibertsitateak sortu zenetik utzikieriaz sortutakoa alegia! 25 urtetako arazoa!

25 urteotan ikasleoi eskaini diguten garraio zerbitzuak miseriara eta prekarietatera baino ez gaitu kondentzen. Unibertsitatea jendartearen abangoardian eta herriaren bizitzan integraturik ikusi nahi dute, etorkizuna eraikitzeko aitzindaritzan daudela diote... badute nondik hasi, 25 urte dela jendartetik isolatu zuten kanpus hau herriarekin lotzen badaukate lana! Bitartean, zulo beltz honetan islatu dezatela haien burua, unibertsitatearen kolore beltz honetatik halaxe ikusten baita etorkizuna. Ikustarazi gura diguzuenak dituen kolore bakarrak, zuen zurikeriaren zuria eta lotsaren gorria baino ez dira!

### **Segi**

Gazte erakundetik eta gazte ikuspegi batetik, gogor salatu behar dugu UPVk bere sorreratik eta 25 urte hauetan gaur egun arte izan duen ibilbidea.

UPV duela 25 urte Madril eta Gasteiz artean adostutako marku estatutario batean sortu zen, gazteon eta herriaren beharrei baino, autonomismoari erantzun dion unibertsitatea izan delarik. Egun, marko estatutario hori agortuta dagoela hainbeste hitzegiten den honetan, gazteok azpimarratu beharra dugu, UPV bera ere agortuta dagoela.

UPVk, gazteria, autonomismoan, hizkuntza espainolean, sistema kapitalistaren mesedetan eta inposizioan hezitu du denbora guzti honetan. Gazteok 25 urte hauetan errealitatea aldatzeko autua egin dugun bakoitzean, UPVtik erantzuk bakarra jaso dugu: errepresioa eta egurra.

Zuek, UPVren 25. urteurrena ospatzen duzuen honetan, gazte belaunaldi ezberdinei eskeini eta utzi diguzuena madarikatzen dugu, eta horrekin batera, gogorarazten dugu egungo gazteok, gure aurreko gazte belaunaldi ezberdinek 25 urte hauetan egin duten bezala, benetako unibertsitate euskaldun eta nazionalaren alde borrokan jarraituko dugula. Gazteria eta Euskal Herriaren beharrei eta mesedeei erantzungo dien unibertsitatea, unibertsitate herrikoia, herriarena eta herriarentzat izango dena, gazteon hitza aintzat hartuko duena.

### **Irakasle kaleratuak**

Gu, UPVsortu aurretik geunden, unibertsitate honetan lanean genbiltzan “Universidad de Bilbao” zeritzon hartan. Hasteko borroka latza izan genuen garai hartan, izenetik hasita guztiz desagokia iruditzen zitzaigulako Euskal Herriko Unibertsitate izena. Izan ere, gu euskal unibersitate osoaren alde ari ginen lanean, eta ez genuen hiru probintziatako marko hori onartzen. Borroka handia egon zen garai hartan hego Euskal Herrirako unibertsitate barruti bakarra sortzeko, baina marku hauen barruan kokatzen zen unibertsitatea inposatu ziguten.

Urte hauetan guztietan borroka latza eraman dugu aurrera, irakasleak kontratatzeko ereduari buruz. Orain dela 13 urte t'erdi bota gintuzten unibertsitatetik, guk, Euskal Herrirako egokia izango zen irakasle bat antolatzea eskatzen genuelako; espainako funtzionario izango ez zena, kontratu duin bat izango zuena, bidezko zerbitzu publiko bat eskainiko zuena... eta honegatik guztiagatik kaleratuak izan ginen.

Hala ere, guk borrokan segitzen dugu eta gainera, urte guzti hauetan, gure borrokari esker emaitzak lortu dira, aurreko egoera ezagutu ezean, sumatzen ez direnak. Gaur egun, posiblea da gure eskari historiko horiek legez ere gauzatzea. Izan ere, muga guztien gainetik, Euskal Herriko hiru probintzia hauetarako unibertsitate legea sortu baita.

Harro gaude egindako borrokagatik eta mezu bat transmititu gura genuke: borrokak fruituak ematen dituela, eta honelako ekimenen bidez idazten dela memoria historikoa. Jendeak, jaialdi baten inguruan bilduta, ahaztu nahi du 25 urtetan gertatu dena eta benetan, borroka guzti hauek ere unibertsitate honen historia irudikatzen dute.

## **Euskal Adarra**

Unibertsitate honen jaiotzatik gaur egun arte, etengabea izan da euskal adarreko komunitateko ikasle eta irakasleek, modu kolektibo zein norbanako gisa euskalduntzearen bidean egindako borroka eta lana. Hori dela eta begi bistakoak dira urte guzti hauetan borroka hauen ondorioz lortutako lorpen eta aurrerapausuak. Baina era berean, agerian gelditu da unibertsitate honek borroka eta lan guzti horri jarritako traba eta zailtasunak. Oraindik ere, unibertsitatean euskarak bizi duen egoera diglosikoari aurre egiteko gai izan ez direlarik.

## **Ikasle Abertzaleak**

25 urte dira jada. 25 urte, batzuentzat zorioneko urteak, besteentzat, aldiz, zorigaiztoko. Ikasle mugimenduaren aldetik, ez dira ospakizunetarako garaiak: 25 urteetan, ikasle on eskubideak urratu ditu instituzio unibertsitario honek, traba trabaren atzetik da jarri dizkiote ikaslegoari. Eta orain gainera, euskal ikasleriarentzat guztiz arrotza eta ankerra den prozesua aplikatu nahi dio. 25 urteetan, borronte falta da erakutsi duena. Ikaslegoari gure berezko eskubideak urratzeari ekin dio etengabe. Ikaslegoak ez du ezer ospatzeko egun hauetan; aldiz, asko du borrokatzeko: gure eskubideen defentsan lanean jarraituko dugu, zurikerietarako tarterik gabe, ospakizunetarako betarik gabe.

## **GITE-IPES**

GITE-IPEs trantsizio garaian sortu zen hezkuntza eta formakuntza alternatibo eta herritarra bideratzeko asmotan. 25 urteurrena dela eta, UPVren hezkuntza eta formakuntza salatu nahi dugu, izan ere unibertsitate hau ez baita ez euskalduna, ez publikoa eta ezta herritarra ere.

## **103 auziperatuak**

Unibertsitatea adierazpen askatasunerako eta demokraziarako gune beharko luke izan. Baina horren orde, Euskal Herriko unibertsitateko ikasle garenok errepresioa eta zentsura baino ez dugu jaso. Honen adibide garbia izan zen duela bi ikasturte unibertsitate honetan ULOaren ezartzearen aurka egin genuen itxialdi baketsutik indar errepresibo eta polizialek kanporatu gintuztenekoa. Garai hartan, espainiar estatuko hainbat eta hainbat ikasle gai berdinen inguruan mobilizatu ziren bitartean, burututako ekimen baketsuaren emaitza gisa audientzia nazionalen epaituak izatera kondenatu gintuzten.

## **Euskaraz bizi ezin daitekeen ikaslea**

Lotsagarria iruditzen zait Euskal Herriko unibertsitatea deitzen den honetan ikasgai pila euskaraz ikasi ezinaz gain unibertsitateko edozein zerbitzutara hurbiltzen naizenean, kanpotar gisa tratatzen nautela. Madrilen nagoela iruditzen zait, inork edo oso jende gutxik ezagutzen du euskara. Aldiz estatuko beste puntu batetik datorren ikaslea, etxean

bezala sentitzen da, bere ama hizkuntza mundu guztiak ezagutzen baitu. Laburbilduz, euskaraz bizitzeko dudan eskubidea aldarrikatzen dut.

## **7 baietz aldizkaria**

Aldizkari hau aspaldiko ekimena da, duela hamar urte jarri baitzen martxan. Aldizkari honen ibilbidea laburra eta xumea izanagatik interesgarria ere izan zela azpimarratzea gura nuke, izan ere, momentuan sumatzen genituen bi gabezia betetzeko asmoz sortu baitzen; batetik euskarazko prentsa bultzatzeko unibertsitatearen baitan, eta bestetik informazio zehatz eta alternatiboa elarazteko. Honen aurrean UPVren aldetik jaso genuen erantzuna, zentsuran oinarritu zen, eta bere esku zegoen guztia egin zuen guk luzatzen genuen informazioa isilarazteko. Beraz, ezingo genuke balantze negatiboagorik egin.

Guzti honekin, datorren astean kanpusetan burutuko ditugun informazio asteen berri ematea ere nahi dugu. Gonbidapena eginez Euskal Herritar orori baina bereziki unibertsitateko komunitatearen parte den edo izan den edonori bere ahotsa eta balorazioak plazaratu ditzan: eztabaida herrikoietan, ez donk 25 jaialdian parte hartuz, ...

Honetaz guztiaz gain ahots guztiak bermatuko dituen eta bizipen ezberdinak bilduko dituen liburuxka argitaratuko dugu, UPVren bestelako historia aditzera emateko.

**Ez donk 25 bilgunea**  
Leioan, 2005eko azaroaren 23an.